

MAYATZEKO LORAK



GUZTIENTZAKOA

Erdu goazan guztiok
lorakaz aldra baten
Ama dogu ta opaten
lorak Mariari.

BATZUNTZAKOAK

Mayatzeko lorakaz
eio daigun koroia
—amodiozko doia
gure Erregiñari—
goazan gazte ta zaarrak
Mariaren aurrera,
koroia eroatera
Ama maiteari.

Mariaren semeak
amaitu-artean illa
gabiltzaz lora-billa
emoteko Amari:
lorakaz eskuetan
gatoz pekatariak
biotzeti eskariak
egiten berari.

Loraik ederrenak
infernuko pistiak
galdu ebazan biak
iaio ta bertati;
eta eurakaz batera
eldu iakan orbana
galdurik itsi ebana
azi guztiari.

Baiña alper iaioa zan
azi orbanduaganik
ez iakan eldu orbanik
lora dontsuari:
eta apal emon eutsan
erraietan lekua,
graziako tenplua
Iaun da gizonari.

Munduak eztiturik
 sugearen adurra,
 eriotza ziurra
 zor eutsan Ebari:
 baiña gero Mariak
 zabaldu eban zerua,
 zapaldu ta burua
 suge bekoari.

Negarrez mundu onetan
 gagoz pekatariak,
 biurtuizuz begiak
 geure erreguari:
 opaizuz, arren, Ama,
 gugaiti neke danak
 igaro zenduzanak,
 zeure Semeari.

Zoriontzako izarra
 zara zu, Ama biguna,
 argi egiten dozuna
 mundu guztiari:
 zeugaiti, Ama maitea,
 bidea zerurako
 erraza egiten iako
 pekatariari.

¿Nok kontau leiz arimak
 il da egon direanak
 emon deutzazuzanak
 zeure Semeari?

¿Eta pekataririk
 nor iñon aurkitu lei
 gorra danik zeure dei
 maitagarriari?

Emoten badautsagu,
 Maria Ama maitea,
 zuganako bidea
 geure biotzari;
 eztoгу bear ezer
 ondo bizi izateko
 ta eskerrak emoteko
 zeruan launari.

Zugana elduten danak,
 Ama, zeure bitartez
 iarraituten dautsa artez
 launan bideari:
 eta biziten bada
 zeugana biurturik
 eukiko eztau bilidurrik
 eriotzeari.

EUSEBIO MARÍA AZKUE-TARRAK

